



OINAK
BIDEAN



BIHOTZA
ADOREZ

CORAZONES
ARDIENTES

PIES
EN CAMINO


TXOSTENA

2022 - 2023

 **MISSIO**

MISIONES Y COOPERACIÓN
DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA

Pº de Hériz, 82 (Edif. Seminario)
20008 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

 943 42 77 54

 www.missio.eus

 idazkari@missio.eus

 **Domund**

Aita Santuaren Misiso Ekintzak
Obras Misionales Pontificias

Aita Santuaren Misio Ekintzak

Aita Santuaren Misio Ekintzak Eliza unibertsalaren eta elizbarruti bakoitzaren erakunde bat dira, misiolariak mundu osoan barna aurrera eramaten duten ebanjelizazio eta zabalkunde sozialeko eginkizunetan izaten dituzten premia handienei erantzuteko. Lau Ekintza nagusi hartzen ditu barnean: Domund, Haur Misiolariak, Tokian tokiko bokazioak eta Misio Batasuna. OMP-ek antolatua dute Elkartasun Funts Unibertsal bat, eta bertan jasotzen dira fededunen ekarpenak. OMP-en arduradun nagusia Aita Santua da.

2022ko urriaren amaieran, gure elizbarrutiko OMP eta Elizbarrutiko Misioen eta Lankidetzaren Zerbitzua Seminario eraikinera aldatu ziren, Donostiako Heriz Pasealekuko 82.ean, gotzaindegiaren gainerako zerbitzuen ondora.

	Fedea zabaltzea 1822	Haur Misiolariak 1843	Tokian tokiko Bokazioak 1889
Helburuak	Eliza partikularren ebanjelizazioa misio-lurraldeetan	Mundu osoko umeen misiolari-kontzientziaren gainerako hezkuntza	Misio-lurraldeetako bokazioak eta haien prestakuntza
Jarduerak	Tokiko eliza sortu berriak indartzea, erlijio-ekintza beren kabuz aurrera eramateko baliabide eskasia gainditzeko laguntzeko	Misiolari-espirtua eta elkartasuna sustatzea mundu osoko umeen artean	Komunitate kristauen misioarekiko sentikortasuna lantzen duten pertsonen misiolari-prestakuntza sustatzea
Ospakizuna	Domund: urriko azken aurreko igandea	Haur Misiolariak: Denbora Ordinarioko bigarren igandea	Pazko laugarren igandea
Karisma	Unibertsaltasuna Komunioa	Elkarrekikotasuna Txikitasuna	Misiolaritza Komunikazioa

IPAR BARRUTIKO GOGOETA ETA MISIO SUSPERKETARAKO TOPAKETA

2022ko urriaren 8an izan zen, Bilboko Begoña auzoko espiritualtasunaren etxean. Ipar barrutiko ordezkarietzako kideak (Iruña, Donostia, Gasteiz eta Bilbo; Errioxak ezin etorria adierazi zuen) elkartu ziren gogoeta egiteko, kezkak partekatzeko eta bizitasuna emateko misio susperketari ikasturte berrian, DOMUND ospakizunaren aurreko egunetan. Hau zen aukeratutako gaia: “Misioa egun: nola jarraitu lekuko izaten gaur egun?”

Gogoeta errazteko, honako hitz hauen inguruan antolatu zen lana: ATERATZEA, EZAGUTZEA, ZAINTZEA, ZEINU IZATEA ETA KONFIANTZA. Topaketa lagungarria izan zen intuizioak, galderak eta sakontzeko lerroak argitzeko. Izan ere, misioen zeregina ez da amaitzen; funtsezkoa da Elizaren bizitzan.

DOMUND 2022. “Nire lekuko izango zarete”

Domund da misioen egun nagusia, ezbairik gabe. Egun horretan, modu berezian, Eliza unibertsalak otoitz egiten du misiolarien alde, eta laguntza eskaintzen die misioei. Mundu osoan ospatzen da, urriko azken aurreko igandean, eta, 2022an, urriaren 23an izan zen. Helburua da misioen itzala urriko hilabete osora hedatzea, eta, horrenbestez, urria misioen hilabetea bihurtzen da.

Jardunaldi horretarako, aita santuak Eg 1, 8 pasartea ekarri zuen gogora: “Zuen gain jaitsiko den Izpiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalem, Judea osoan, Samarian eta lurraren bazterreraino”.

Kanpainaren susperketa ikastetxeetan; horretarako erabili ahal izan dugu Sakramentu Txit Santuaren O. de M.-ren lekukotasuna, haiek zuzentzen baitute babes-etxe bat Pemba hirian (Mozambique).

Bezpera misiolariak eta Argiaren Bijilia: urriko lehenengo ostiralean, Lasartera joan ginen, monja birgitarren etxera, bezpera misiolarien otoitza egitera. 30 lagun inguruko talde batek hartu zuen parte. Deialdian gonbitea egin zen bestelako kontenplazio-komentu batzuek bat egin zezaten haien otoitzaren misio-asmoarekin. Beste alde batetik, urriaren 2lean, ostirala, Argiaren Bijilia ospatu genuen, Donostiako Santo Domingo monasterioan. Bijilia Francisco González Hernándezek zuzendu zuen, Peruko Puerto Maldonadoko bikario apostoliko emerituak. Ospakizunean, Peruko Amazonian izan zuen misiolari-eginkizunaren lekukotasuna eskaini zuen.

ABENDUALDI MISIOLARIA

Abendualdiko egutegia zabaltzea katekesi eta hezkuntza-arduradunen bitartez. Materialak harrera ona izan zuen, eta parrokiako katekesietan eta katekesi familiarretan landu da.

HAUR MISIOLARIEN JARDUNALDIA 2023. “Bat denontzat eta denok beretzat”

Jardunaldia bera urtarrilaren 15ean ospatu zen. Kanpaina hau eratu da katekesi-ibilbide baten gisara, abiapuntua Abendualdi Misiolaria izan baitzuen, eta helmuga, berriz, martxoko topaketa.

HAUR MISIOLARIEN JARDUNALDIA 2023. “Bat denontzat eta denok beretzat”

Jardunaldia bera urtarrilaren 15ean ospatu zen. Kanpaina hau eratu da katekesi-ibilbide baten gisara, abiapuntua Abendualdi Misiolaria izan baitzuen, eta helmuga, berriz, martxoko topaketa.

HAUR MISIOLARIEN TOPAKETA

Martxoaren 25ean egin zen, Billabonan. Topaketa horretan parte hartu zuten elizbarrutiko hainbat katekesi eta ikastetxetako 300en bat umek, eta, haiekin batera, katekista eta guraso-talde oparoa. Jardunaldirako aukeratutako lema Haur Misiolarien lema bera izan zen. Topaketan ibilbide bat egin zen inguruan; ondoren, tailer batzuk, eta, amaieran, otoitz bat egin zen, gotzainak zuzendua.

TOKIAN TOKIKO BOKAZIOEN JARDUNALDIA 2023. “Jarri bidean. Ez itxaron gehiago”

Asmo handirik gabeko kanpaina da, baina gure ardura da ekonomiarekin laguntzea gure eliza-senideei apaiztegien eta nobiziotegien sostenguan, misio-lurraldeetan sor daitezkeen bokazioek aurrera egin dezaten eta beren onena eman ahal izan dezaten, eliza gazteen zerbitzuan. Jardunaldiak bat egiten du, liturgiari dagokionez, Artzain Onari eskaintzen zaion Pazko igande laugarrenarekin.

Kanpaina hau orain dela zenbait urte hasi ginen egiten, Elizbarrutiko Bokazio Pastoralzaren Zerbitzuarekin koordinatuta, eta jarduerak bi Zerbitzuetatik proposatzen dira. Aurten, honako jarduera hauek eraman ziren aurrera:

-Bokazioen bideoak bidaltzea whatsapp bidez astean zehar. Bideo horietakoren bat elizbarrutiko Betania TB kanalean ere emititu zen.

-Erronka: martxoaren amaieran eta apirilaren hasieran, deialdia zabaldu zen gazte eta helduentzat, argazki bat bidal zezaten, bizkarrean motxila zutela, bidean dagoenaren seinale, Elizan aurrera eramaten den zerbitzua zein den islatzeko. Jasotako argazkiekin bideo bat prestatu zen, eta komunikabide eta sareen bidez zabaldu zen.

-Bokazioen aldeko otoitza, apirilaren 28an, ostirala, Donostiako Santo Domingo monasterioan.

-Eukaristia, katedralean.

IPAR BARRUTIKO OMPen ZUZENDARIEN KOORDINAZIOA

Ipar barrutiko OMPen zuzendariak 4 aldiz elkartu dira, Gasteizen, elizbarruti bakoitzeko kanpainen garapena programatu eta ebaluatzeko. Beste alde batetik, maiatzaren 22tik 24ra bitartean, Misioetako Delegatuen Jardunaldi Nazionalak eta Aita Santuaren Misio Ekintzen Batzar Nazionala egin ziren, El Escorialen.

MISIOLARIEKIKO KOMUNIKAZIOA

Elizbarrutiko Misioetarako Zerbitzuak ahaleginak egiten ditu misiolariak eta haien lana erdigunean jartzen. Lotura zenbat eta estuagoa izan, orduan eta hobeto orientatu ahal izango ditugu haien proiektuak eta, nolabait ere, haien solaskideak izan, diozesiaren beste esparru batzuekiko. Haien bisitek laguntzen digute misioari aurpegia jartzen. Ikasturte honetan bisitan etorri zaizkigun misiolariak gutxi izan badira ere, haiekiko kontaktuan egon gara posta elektronikoko bidez eta modu telematikoan.

DIRU-ESKEEN LABURPENA

ARZIPRESTALDEAK	DOMUND	INFANCIA MISIONERA	VOCACIONES NATIVAS
Beterri	9.856,66	6.822,66	3.622,62
Donostia	49.104,30	15.389,43	11.888,90
Ekialde	16.150,87	7.648,04	3.987,90
Goierri	8.752,13	3.708,57	2.780,90
Mendebalde	9.996,71	6.305,70	4.779,98
Urola - Kosta	14.797,67	6.154,09	4.184,79
Otros	10.123,28	3.920,32	2.786,79
TOTAL	118.781,62	49.948,81	34.031,88

LAGUNDU / COLABORA

KUTXABANK ES05 2095 5001 0710 6000 0659

LABORAL KUTXA ES48 3035 0060 4606 0000 0411



**OINAK
BIDEAN**

2023ko urriaren 22
22 de octubre 2023


**BIHOTZA
ADOREZ**

**CORAZONES
ARDIENTES**

**PIES
EN CAMINO**

#DOMUND



OINAK
BIDEAN



BIHOTZA
ADOREZ

CORAZONES
ARDIENTES

PIES
EN CAMINO

INFORME

2022 - 2023


MISIONES Y COOPERACIÓN
DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA

Pº de Hériz, 82 (Edif. Seminario)
20008 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN



943 42 77 54



www.missio.eus



idazkari@missio.eus


Domund

Aita Santuaren Misiso Ekintzak
Obras Misionales Pontificias

Las Obras Misionales Pontificias (OMP)

Obras Misionales Pontificias (OMP) son una institución de la Iglesia universal y de cada Iglesia en particular para atender a las grandes necesidades de los misioneros en su labor de evangelización y de promoción social por todo el mundo. Consta de cuatro Obras: Domund, Infancia Misionera, Vocaciones Nativas y Pontificia Unión Misional. Las OMP disponen de un Fondo Universal de Solidaridad al que llegan las aportaciones de los fieles. El principal responsable de las OMP es el Papa. A finales de octubre de 2022 las OMP de nuestra diócesis, entidad incluida en el Servicio Diocesano de Misiones y Cooperación, se trasladaron al edificio del Seminario diocesano, en el Paseo de Hériz nº 82 de San Sebastián.

	Propagación de la Fe	Infancia Misionera	Vocaciones Nativas
Fin fundacional	Evangelización de las iglesias particulares en territorios de misión	Educación de una conciencia misionera de los niños y niñas de todo el mundo	Vocaciones en territorios de misión y su formación
Campo de acción	Fortalecer las iglesias locales de reciente implantación, que carecen de medios para poder desarrollar su acción autónomamente	Alentar el espíritu misionero y la solidaridad mutua entre los niños y niñas de toda la tierra	Promover la formación misionera de quienes, a su vez, se ocupan de sensibilizar sobre la misión a las comunidades cristianas
Jornada	Domund: penúltimo domingo de octubre	Infancia Misionera: segundo domingo del Tiempo Ordinario	Cuarto domingo de Pascua
Rasgos del carisma	Universalidad Comunión	Reciprocidad Pequeñez	Misionariedad Comunicación

ENCUENTRO DE REFLEXIÓN Y ANIMACIÓN MISIONERA DE LA ZONA NORTE

Tuvo lugar el 8 de octubre de 2022 en la casa de espiritualidad de Begoña, en Bilbao. Los miembros de las delegaciones de Misiones de la zona Norte (Pamplona, San Sebastián, Vitoria y Bilbao, La Rioja excusó su asistencia) se reunieron para reflexionar, para compartir inquietudes y dar dinamismo a la animación misionera en el nuevo curso a las puertas del DOMUND. El tema elegido fue “La Misión hoy: ¿Cómo seguir siendo testigos en el momento actual?”

Para facilitar la reflexión, se trabajó en torno a las siguientes palabras: SALIR, RECONOCER, CUIDAR, SER SIGNO Y CONFIANZA. El encuentro ayudó a suscitar intuiciones, interrogantes y líneas para seguir profundizando porque la tarea misionera no acaba, es fundamental para la vida de la Iglesia.

DOMUND 2022. “Seréis mis testigos”

El Domund es la jornada misionera por excelencia. Es el día en que, de un modo especial, la Iglesia universal reza por los misioneros y colabora con las misiones. Se celebra en todo el mundo el penúltimo domingo de octubre, en 2022 fue el 23 de octubre. No obstante, se trata de que la dimensión misionera impregne todo el mes de octubre de tal manera que octubre es considerado el mes de las misiones.

Para la jornada, el papa se fijó en la cita Hch 1,8: “El Espíritu Santo vendrá sobre ustedes y recibirán su fuerza, para que sean mis testigos en Jerusalén, en toda Judea, en Samaría y hasta los confines de la tierra”.

Animación de la campaña en colegios, hemos contado con el testimonio de las Mercedarias del Santísimo Sacramento que dirigen una casa-hogar para niñas en Pemba (Mozambique).

Vísperas misioneras y Vigilia de la luz: El primer viernes de octubre nos trasladamos a Lasarte, acogidos por la MM. Brígidas para rezar vísperas misioneras. Participó un grupo de unas 30 personas. En la convocatoria se invitaba a que otros conventos de contemplativas se sumaran a la intención misionera en su oración. Por otro lado, el viernes 21 de octubre celebramos la Vigilia de la Luz en el monasterio de Santo Domingo de Donostia. Dicha vigilia fue presidida por Mons. Francisco González Hernández, vicario apostólico emérito de Puerto Maldonado (Perú). En el transcurso de la celebración dio su testimonio como misionero en la Amazonia peruana.

ADVIENTO MISIONERO

Difusión del calendario de Adviento por medio de los responsables diocesanos de catequesis y enseñanza. El material tuvo buena acogida y lo han trabajado en las catequesis parroquiales y familiares.

JORNADA DE LA INFANCIA MISIONERA 2023. “Uno para todos y todos para Él”

La jornada, como tal se celebró el 15 de enero. Esta campaña se ha concebido como un itinerario catequético ya que tuvo como punto de partida el Adviento Misionero y como meta, el encuentro de marzo.

ENCUENTRO DE INFANCIA MISIONERA

Tuvo lugar el sábado 25 de marzo en Villabona. En dicho encuentro participaron 300 niños y niñas provenientes de diferentes catequesis y centros escolares de la diócesis. Acudieron acompañados por un nutrido grupo de catequistas y padres y madres. El lema elegido para la jornada fue el mismo de la Infancia Misionera. El encuentro se concibió como una marcha por el entorno al que siguieron unos talleres para concluir con una oración presidida por el señor obispo.

JORNADA DE VOCACIONES NATIVAS 2023. “Ponte en camino, no esperes más”

Es una campaña modesta, pero también es responsabilidad nuestra colaborar económicamente con otras iglesias hermanas en el sostenimiento de seminarios y noviciados para que las vocaciones que surjan en los territorios de misión puedan desarrollarse y formarse y así, puedan dar lo mejor de sí mismas en el servicio a las iglesias jóvenes. La jornada coincide litúrgicamente con el 4º domingo de Pascua dedicado al Buen Pastor.

Esta campaña la venimos organizando desde hace unos años en coordinación con el Servicio diocesano de Pastoral Vocacional, de tal manera que las actividades se proponen desde los dos Servicios. Este año se llevaron a cabo las siguientes actividades:

- Envío de vídeos de distintas vocaciones por whatsapp a lo largo de la semana. Alguno de los vídeos también se emitió en el canal de TV diocesano Betania.
- Reto: A finales de marzo y principios de abril se hizo un llamado a jóvenes y adultos para que enviaran una fotografía con una mochila como señal de que se está en camino que reflejara cuál es el servicio que se desarrolla en la Iglesia. Con las fotos recibidas se preparó un vídeo que se colgó en los medios de comunicación y en las redes.
- Oración por las vocaciones el viernes 28 de abril en el monasterio de Santo Domingo de San Sebastián.
- Eucaristía en la catedral

COORDINACIÓN DE DIRECTORES DE OMP DE LA ZONA NORTE

Los directores de OMP de la zona Norte se han reunido en 4 ocasiones en Vitoria para programar y evaluar el desarrollo de las campañas en cada una de las diócesis. Por otro lado, del 22 al 24 de mayo tuvieron lugar las Jornadas Nacionales de los Delegados de Misión y la Asamblea Nacional de las Obras Misionales Pontificias que se celebraron en El Escorial.

COMUNICACIÓN CON MISIONEROS Y MISIONERAS

El Servicio Diocesano de Misiones trata de poner en el centro a los misioneros y misioneras, así como la tarea que desarrollan. Cuanto más estrecho sea el vínculo podremos orientar mejor sus proyectos y ser, en cierta medida, interlocutores de cara a otros ámbitos diocesanos. Sus visitas nos ayudan a poner rostro a la misión. Aunque este curso han sido pocos los misioneros que nos han visitado, hemos mantenido el contacto por correo electrónico y telemáticamente.

Datos económicos de las colectas

ARCIPRESTAZGO	DOMUND	INFANCIA MISIONERA	VOCACIONES NATIVAS
Beterri	9.856,66	6.822,66	3.622,62
Donostia	49.104,30	15.389,43	11.888,90
Ekialde	16.150,87	7.648,04	3.987,90
Goierri	8.752,13	3.708,57	2.780,90
Mendebalde	9.996,71	6.305,70	4.779,98
Urola - Kosta	14.797,67	6.154,09	4.184,79
Otros	10.123,28	3.920,32	2.786,79
TOTAL	118.781,62	49.948,81	34.031,88

LAGUNDU / COLABORA

KUTXABANK ES05 2095 5001 0710 6000 0659

LABORAL KUTXA ES48 3035 0060 4606 0000 0411



**OINAK
BIDEAN**

2023ko urriaren 22
22 de octubre 2023


**BIHOTZA
ADOREZ**

**CORAZONES
ARDIENTES**

**PIES
EN CAMINO**

#DOMUND